

# XXI. EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA

## EREINTZA ELKARTEKO ESKULANGINTZA TALDEA

### SARRERA

Berriro ere "OARSO" aldizkariaren orrialdeetera gatzki-zue, aurtengo Eskulangintza Azokaren garapenaren berri ematera. Izan ere, orain dela hogeita bat urte hasi eta hutsik egin gabe urtez urte antolatzen den ekintza hau, Errenteriako kultur gertakari klasiko bat bihurtu baita.

Baina aurtengo edizio honen zehaztasunetan sartu aurretik, Eskulangintzaren egungo egoera nolakoa den, edo nolakoa ikusten dugun behintzat, aditzera eman nahi genuke laburki. Izan ere azken urteetan aldaketa ixila baina etengabea ematen ari da mundu honetan, eta horren eraginez Ereintzak ere bere antolatzaile papera, egoera berri honetara egokitu behar izan du, artisauak bere elkarte eta erakundeen bidez berea betetzen ari diren neurrian.

Orain dela hogeitaz urte, hasi ginen garai hartan, Eskulangintza guztiz gainbehera zihoan sektorea zen. Artisauak sakanatuta aurkitzen ziren, bakoitzak bakartasunean eta bere aldetik hala nola lana eginaz, ia etnografi alorrera mugatuak, eta beraz gizarte arruntarengandik zeharo ezezagunak. Berehala konturatu ginen azokak antolatzeaz gain, gure esparrutik kanpo gelditzen ziren beste bide eta neu-

rriak hartu behar zirela: horien artean instituzioek gai hau bere gain seriozki hartu zezatela lortzea. Geroztik zenbait pauso eman dira, eta orokorrean egoera hobetzen ari dela esan genezake, hobetze horretan Ereintzak ere bere eragina izan duelarik, Gipuzkoako kasuan batez ere. Horren ondorioz, Gipuzkoako Bazkunea edo Cámara de Comercio-rekin eta Foru Aldundiarekin harreman instituzionalizatuak mantentzen ditugu; lehenengoarekin, urtero ematen ohi duen "Gipuzkoako Artisau Tradizionalaren" Sarietan epaimahaikide garenez, eta bigarrenarekin, ihaz ezkerotzik martxan dagoen "Artisautzaren Gipuzkoako Kontseilua" deritzan erakundearen partaide izanik.

Azken honetaz, sortu ezkerotzik daraman epe laburrean, Artisauen Zentsua eta Errolda, Artisau Maisuaren Egiaztagiria, Gipuzkoako Artisautza Berme Ikurra edo antzeko proposamenak aurrera eramateaz gain, urteroko Gipuzkoako Artisautza Sektorea Sustatzeko Plana Arautzen duen Foru Dekretoa onartzea dagokiola aipatu beharra dago. Foru dekretu honek artisau eta artisautzaren garapenerako behar diren egitarauak, laguntzak, baldintzak eta bar arautzen ditu.

### AURTENGO EDIZIOA. KOKAGUNE BERRIA

1999ko Euskal Herriko XXI. Eskulangintza Azoka Apirilaren 30ean, ostirala, ireki eta Maiatzaren 2arte, igandea, luzatu da. Azken urteetan Niessengo pabilioi zaharretan kokatu bada ere, bertako berriztatze lanek, aurrera begira, beste egoitza berri bat aurkitzera behartu gaitu. Hala, kokagune zenbait aztertu ondoren, Udal Pilotalekua ikusi genuen egoitza egokiena bezala; Niessengoak adina leku eskeintzeaz gain, bere ondoan, Erviti Kaleko plazatxoan hain zuzen, karpa bat jartzeko aukera ematen baitzigun. Honela, ihaz hasi genuen azoka haunditzeko plana mantendu ahal izateko aukera ematen zigun bere 1.600 m<sup>2</sup>en bitartez.

Ondorioz esan dezakegu kokagune berri hau Niessengo baino erosoagoa gertatu zaigula, bai espazio eta bai erabileraren aldetik eta aurrera begira, oso egokitzat jotzen dugula Azokaren egoitza berria bezala. Irauten ahal digu !

### GAI BEREZIA

Hainbat edizioetan zehar langintza edo lan-materiale konkretu bat era berezi batean tratatu ohi izan dugu Azokaren barruan: hala nola zura, burnia, beira, ...etabar. Lan-materiale horien kopurua agortzerakoan beste posibilitate berriak aurkitzen saiatu gara urtero. Ihaz, esate baterako, zurarekin loturik, baina dimentsio berri bat eman nahian, Altzarigintza eta bere osagaien mundua hartu genuen gai berezizat: bakarka lanean aritzen diren artisauaz gain, lantegi txiki baina ekoizpen pertsonalizatua duten hainbatetara zabalduaz. Hildo horretatik jarraituz orain dela 18 urte jorratu genuen gai bati lotu gara aurren: Konfiteritza munduari hain zuzen ere.

Errenteriako Azokak berezitasunik baldin badu, artisauak bere ekoizpenen lan-prozedura erakutsi behar izaten dutelana datza. Konfiteritza aukeratzekoan beraz, garbi genuen ez genuela produktuen salmenta soil bat nahi, "in situ"

egindako zenbait produktuen erakusketa haizik. Honela, eta antolatzaileentzat erraza ez bazen ere urte aro horretan azokara etortzeko prest zeuden konfiteroak aurkitzea, edo beharrezko ziren baldintza teknikoak eratzea, labeak, suak eta behar zen tresneriaz osatutako "obradore" bat antolatu ahal izan genuen, konfiteroek lana bertan egin ahal zezaten jendearen atsegingarri. Garai bateko erroskilak edo bolaoak, girlatxe eta malbazuri karameloa, euskal bixkoxta, bonboiak edo tarta berriekin nahasten ziren, ikusleagoaren gozamerako.

### INAGURAZIOA

Azokaren zabaltze ofiziala, Apirilaren 30ean, ostirala, goizeko 12etan egin zen, bertan parte hartzen zuen Miguel Alvarez artisauak egindako garaiko kanoi baten eztanda zaratatsua bidez. Ereintzako lehendakaria den Josu Izagirreraren ongi-etorriaren ondoren, Ekonomi Saileko Diputatua den Guillermo Echenique jaunak hartu zuen hitza, eta bere ondoren, ekintza itxiaz, Errenteriako Alkate Adrian Lopez jaunak. Bertan zeuden ere, bere babesa eta laguntza ematen diguten entitateen ordezkari zenbait: Joxe M<sup>a</sup> Lete jauna Kutzako Kontseilaria, Joxe M<sup>a</sup> Erkizia jauna Kultur Saileko zinegotzia, beste ordezkari eta zinegotziak, komunikabideak eta gonbidatu multzo bat.

### ARTISAU PARTE HARTZAILEAK, LANGINTZAK ETA GEOGRAFI JATORRIAK

Hasteko, esan dezagun antolatzaileek izaten dugun buruhausterik handienetako bat parte hartuko duten artisauen hautaketa egitea dela. Kontuan izanik espazio mugatu batekin aurkitzen garela, eta gure azken helburua Azoka deigarri eta erakusgarri bat egitea dela, oinarri hauen baldintzapean osatzen da artisauen zerrenda: urteko gai bereziaren ordezkari egoki bat lortzea, langintza eta produktuen aniztasuna, artisautzaren kalitatea, artisau berriak aurkeztu ahal izatea, eta geografi oreka. Hau dena, izenak dioen bezala, Euskal Herriko mugetatik atera gabe, eta ohizko artisautzari garrantzi berezia emanaz.

Aurten beraz, 61 artisauk hartu dute parte, langintzei dagokienez honela sailkatuak:

- Gai berezia : Konfiteritza (10)
- Zura: Altzarigintza eta taila (5)
  - Kaikuak, zaliak eta eskalaproiak (3)
  - Jostailu eta torneatuak (2)
- Otargintza: Zume otargintza (2)
  - Gaztain otargintza (1)
- Metalkiak: Burdinlantz (2)
  - Bitxigintza (3)
  - Brontze eta latoiak (2)
  - Esmalte eta grabatuak (2)
- Lurra eta harria: Buztingintza eta keramika (4)
  - Hargintza (1)
  - Beira (1)
- Oihalkiak eta zuntzak: Ehungintza eta bolilloak (3)
  - Espartinak eta zuntza txirikordatuak (2)
  - Seta margotuak (1)
- Larrua: Pilotak (1)
  - Zahatogintza (1)
  - Larrugintza (2)
  - Oinetakoak (1)
- Bestelakoak: Papera eta kartoia (3)
  - Elikagaiak (2)
  - Musika tresnak (1)
  - Garaiko kanoiak (1)
  - Lore idortuak, argizari dekoratuak eta krisailuak (3)
  - Adar taila eta itsas artisautza (2)

Geografi jatorriaren arabera berriz, honela sailkatu dira: Gipuzkoatik (27), Nafarroatik (13), Bizkaitik (9), Arabatik



(8) eta Ipar Euskal Herritik (4). Hauetatik hogeitamarren bat berriak, hau da, lehen aldiz Erreneriako Azokara zetozenak. Langintza motei dagokienez, izan da berrikuntzarik, batez ere produktuen artean nobedade dexente izan delako erakusgai.

### HOBEEKIEN APAINDIRIKO STAND-ARI SARIA

Zazpigarren urtea betetzen duen sari honek, Azokan parte hartzen duten artisuen artean, kalitate estetiko onena erakusten duen "stand"-a saritu nahi izaten du, eta ohizkoa den bezala, Gipuzkoako Bazkondeak izendatutako pertsona adituez osatzen da epaimahaia. Beraz, 50.000 pezeta eta Agiriak osatzen den sari hau, Jose Miguel Arriaga frontoi-sasigile markinarrentzat izan da aurten, zume kondarrez eta garoaz nahasturik dekoratutako bere "stand"-arengatik. Epaimahaia azpimarratu duenez, urtetik urtera "stand" gehientsuenen apainketa maila gero eta ohea da; beraz paretasuna dutenen artean saria erabakitzeke orduan, beste urtetan saritua ez izatea ere kontutan hartzen da.

Sari honen banaketa Maiatzaren 1an, larunbata, arratsaldeko 4,30tan egin zen epaimahiaren idazkaria den Antonio Lopez Etxeberria jaunaren eskutik.

### BISITARI ETA SALMENTAK

Aurtengo edizioari dagokionez, Ereintzak, bere balorapen baikorra eta poza agertu nahi du, lehenik eta behin; naiz eta aurtengo fetxak oso egokiak ez izan azokaren ahalmen guztiak garatu ahal izateko, ikuslegoaren proportzioa gora dihoa, aurtengo 15.000 inguru bisitarien kopuruak garbi erakusten duenez. Bestalde, ihaz hasita bisitarien artean egiten dugun inkesta sistematizatuak, zenbait datu ezagutu, aztertu eta dagokien neurri berriak hartzeko aukera ematen digu. Orain arteko datuek erakutsi digutenez bisitarien ehuneko hogeitamarren bat edo jende berria da, hau da, lehen aldiz Azokara datorrena, eta gainera jende gaztea, 16 urtetik 40 bitartekoa hain zuzen ere.



Arlo honetan, gure erronka nagusia bide horretan sakontzea litzateke, jende eta sektore berriak erakarrituz, zirkuito turistikoetan sartuz, eta Euskal Herriko lurralde guztietan euskal artisautzaren erreferentzi garrantzizkoena Erreneriako izan dadila lortuz.

Salmentei dagokionez, garbi esan nahi dugu Azokaren helburu nagusienetako bat horixe lortzea dela. Izan ere, artisautza biziko bada, merkatal aktibitatea beharrezkoa du eta beraz, azokek ere merkatal gune bizia izatea lortu behar dute; hau da, salerosketa eta enkargu leku bat. Alderdi horretatik, Erreneriako Azokak, Euskal Herrian egiten direnen artean zaharrena izanik, artisautzaren ezagutze eta heziketa bat lortu du ikuslegoarengan, eta hori garbi islatzen da salmenten kopuruan; gehien saltzen den azoka baita artisauek diotenez.

### ONDORIOAK

Baina guzti honek ez gaitu geldiarazi behar aurrera begira, eta gure ahaleginak Azokaren antolaketa hobetzeraz zuzendu behar ditugu, batez ere artisauei egiten zaien inkestetako datuak oinarri harturik. Egia esan, zortzi milioi inguruko aurrekontuaren zatirik handiena, propagandakoa kendurik, antolakuntzan (stand eta karparen alokairu eta muntaia, segurtasun neurriak, bertako garraio lanetako pertsonala, eta abar) gastatzen da, eta hori garbi islatzen da artisuen iritziz baikorretan, bai antolakuntza eta baita jasotzen duten arretaren arloetan.

Azkenik, XXI. Erreneriako Eskulangintza Azokaren garapena aurrera eramatea hainbat laguntzik gabe ez zela posible izango esan behar da. Eskerrak horregatik, lehenik eta behin, parte hartu duten artisauei guztiei, beraiek baitira azokaren zutabea; eskerrak ere, etorritako ikusleagoari, hala nola bere lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste zenbait zerbitzuei, bereziki "Industrial Salva S.A."-ri; eta nola ez, etorritako aginteriei, eta bere laguntza eta babesa urtero ematen diguten erakundeek: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomi eta Turismo Saila, Erreneriako Udala eta Gipuzkoa-Donostia Kutxa. Bihoakie berriro guzti gure eskerrik beroena.

